

PARTAIDETZA ARAUTZEKO OINARRIAK, ETXOLAK ETA FOOD TRUCK-AK USTIATUZ, DONOSTIAKO 2018KO GABONETAKO AZOKAN.

1. XEDEA

Oinarri hauen xedea da Donostiako Gabonetako azoka merkataritza- eta gastronomia-etxolen eta Food Truck-en baldintzak arautzea.

2. GABONETAKO AZOKAREN EZAUGARRIAK

Azoka, 30 etxola inguruz (Donostiako Sustapenak emango ditu) eta 3 food truck-ek osatuta egongo da. Etxolez gain, zenbait elementu ere jarriko dira, hala nola aterpeak eta azoka-atrakzioak, herritarrek erabil ditzaten. Eredu hori Gabonetako opaleku bihurtu nahi da.

Gaikako izaera hori kontuan hartuz, azokan Gabonetako produktuen edo normalean Gabonetan sartzen diren produktuen postuak daude. Besteak beste merkataritza-arlo hauetakoak dira:

- I. TALDEA: MERKATARITZA: Elikagaiak, opariak, dekorazioa, jostailuak, Brocante, urregintza.
- II. TALDEA: GASTRONOMIA: Food Truck
- III. TALDEA: ARTISAUTZA: Opariak, bitxigintza,dekorazioa... eta abar.
- IV. TALDEA: DISEINUA: moda, marrazkiak/pintura, urregintza, diseinua eta sormena...
- V. TALDEA: ATZERRIKO BESTE ESKUALDE BATZUETAKO OHIKO PRODUKTUAK...

Azokak sare elektrikoa eta ura, komun publikoak eta segurtasun-langileak eta azokako jarduerak artatzeko eta koordinatzeko langileak izango ditu.

Merkatua egun guztietan egongo da irekita, abenduaren 5etik urtarrilaren 6ra bitartean.

2.1. Etxolen ezaugarriak

Aurrez aipatutako produktuen salmentarako bi motatako etxola bereizten dira: merkataritza-erakustegietarako etxolak eta gastronomia etxolak. Etxolen ezaugarriak hauek dira:

2.1.1. Merkataritza-erakustegietarako etxolak:

- Neurriak: 3x2 metro (6 m²) Alboko altuera 205cm. Erdiko altuera 270cm.
- Materiala: egurra. Eraiki berriko aurretiko fabrikatutako etxolak. Honakoarekin hornituta daude:
 - Aurrealdeko irekiera erakusmahairekin eta leihatila baskulagarriarekin arretarako, sistema hidraulikoekin eta morroiloarekin.
 - Egur trinkoko ate bat sarraila atzealdean duela, egurrezko lurra eta ecum oholaz babestutako sabaia.
 - Aurrealdeko erakusmahaiak aukeran.
 - Bi alboko irekigune erakusmahaiarekin eta leihatila baskulagarriarekin arretarako sistema hidraulikoekin eta morroiloarekin.
 - Hiru apal generoa ipintzeko.
 - Kanpo argiak.
 - Merkataritza errotulua.
- Kaxa elektrikoa 3500w diferentzialarekin eta hiru entxufe.

Harraska eskatzeko aukera dago. Horrelakoetan, hauek dira harraskaren ezaugarriak: sistema eramangarria, 10 litroko 2 bidoi eta eragiteko pedal bikoitza. Horrelakoetan, harraska aukeratuz gero prezioa 200 eurotan igoko da.

Erakuslaren batek merkataritza etxola handiago bat lortu nahi izango balu, etxolen ereduak bi etxola batzeko aukera ematen du, barrualdea diafano moduan geldituz.

2.1.2 Etxola Gastronomikoak:

- Neurriak: 4x2 metro (8 m²) Alboko altuera 205cm. Erdiko altuera 270cm.
- Materiala: egurra .Eraiki berriko aurretik fabrikatutako etxolak. Honakoarekin hornituta daude:
 - Aurrealdeko irekiera erakusmahairekin eta leihatila baskulagarriarekin arretarako, sistema hidraulikoekin eta morroiloarekin.
 - Egur trinkoko ate bat sarraila atzealdean duela, egurrezko lurra eta ecum oholaz babestutako sabaia.
 - Aurrealdeko erakusmahaia aukeran.
 - Bi alboko irekigune erakusmahaiarekin eta leihatila baskulagarriarekin arretarako sistema hidraulikoekin eta morroiloarekin.
 - Sei apal generoa ipintzekoHarraska sistema eramangariarekin, 10 litroko 2 bidoi eta eragiteko pedal bikoitza.
 - Kanpo argiak.
 - Merkataritza errotulua.
- Kaxa elektrikoa 3500w diferentzialarekin eta hiru entxufe.

Etxolak Donostiako Sustapenak emango ditu. Donostiako Sustapenak kanpotik apainduko ditu, eta etxola guztiak modu homogeanoan girotuko ditu. Bestalde, elementu apaingarri egokiak ere jarriko ditu etxola bakoitzean. Barruko dekorazioaz etxola hartzen duena arduratuko da. Baina Donostiako Sustapenak behar bezala ezarri eta jakinaraziko duen dekorazioaren baldintza orokorrak kontuan hartu beharko ditu.

2.2.Kokapena

Azoka hiriguneko zenbait tokitan kokatu ahalko da, besteak beste: Urumeako pasealekuan, Santa Katalina zubiaren eta M^o Kristina zubiaren arteko tartean, Artzai onaren plazan, Santa Katalina plazan eta Alderdi Ederrean. Donostiako Sustapenak erabakiko du non kokatuko den behin betiko, elementu erabilgarrien eta esleitutako etxolen arabera.

2.3. Etxolak/food truck-ak alokatzeko eta ustiatzeko baldintzak

- Etxolek eta food truck-ek egun guztietan irekita egon beharko dute, abenduaren 5etik urtarrilaren 6ra arte, justifikatuta arrazoiengatik izan ezik, betiere Sustapenak behar bezala baimentzen badu. Salbuespen gisa, abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita egon ahalko dira..
- Etxolak eta food truck-ak irekitzeko derrigorrezko ordutegia 11:30etik 14:30era eta 16:00etatik 20:00etara izango da. Nolanahi ere, egokitzen jotzen duen edozein erakuslek 10:00etatik 21:00etara ireki ahal izango du astegunetan eta 22:00etara jaiegunetan eta jai bezperatan. Donostia Sustapenak ordutegia aldatzeko eskubidea dauka, adjudikazioa egokitzen zaien erakusleekin adostuta. .
- Erakusketariak egutegia eta ordutegia behin eta berriz ez badute betetzen, justifikatutako arrazoi objektiborik gabe, etxola ustiatzeko eskubidea galdu ahalko du, eta horrenbestez, ezingo du parte hartu azokan..
- Etxola bat hartzeko 600 euro (BEZik gabe) ordaindu behar dute merkataritza-establezimenduek eta artisauek, eta 2.000 euro (BEZik gabe) Food Truck-en jardueren kasuan, azoka egoten den aldirako..
- Asteka eskatzen bada, 150 euro (BEZik gabe) ordaindu beharko dute merkataritza-establezimenduek eta artisauek eta 700 euro (BEZik gabe) Food Truck-en jardueren kasuan. Prezio hau 200 eurotan igoko da, harraska instalatzea eskatzen duten erakusleen kasuan.
- Erakusketari bakoitzak 100 €-ko fidantza ordainduko du, hartzailak eragin ditzakeen kalteetarako; ez dira kontuan hartuko berak ez eragindakoak.
- Saltzen diren produktua edo produktuak arautzen dituen arautegiak ezarritako baldintzak bete beharko dira.
- Etxolaren alokairurako kontratu bat sinatuko du Donostiako Sustapenak eta onuradunak.
- Aldez aurretik edo kontratua sinatzean ordainduko da zenbatekoa, Sustapenak adierazten duen kontura egindako banku-transferentzia bidez.

3. ESKAERAK, EPEA ETA AURKEZPENEA

Nahi duen pertsona fisiko edo juridikoko eskaera bat aurkeztuko da, produktu mota, eta hala badagokio, etxola kopurua adieraziz.

Ezaugarri bereko edo desberdineko produktuak saldu nahi dituzten bi pertsonak edo gehiagok batera egin dezakete eskaera. Kasu horretan, bi parte-hartzaileek Oinarri hauetan eskatutako baldintzak bete beharko dituzte. Eskaeran, zer objektu saltzen dituzten eta postuan zenbat denbora egongo diren adierazi beharko dute.

Etxola edo food trucka azokak irauten duen aldi osoan (abendua 5etik urtarrilaren 6ra arte) eta asteka ustiatzeko eska daiteke.

Eskaerak aurkezteko epea Donostiako Sustapenak oinarriak www.fomentosansebastian.eus webean argitaratu eta hurrengo eguneko 09:00etan hasi eta 2018ko urriaren 26ko 13:00etan amaituko da.

Eskaerak Donostiako Sustapenaren webean (www.fomentosansebastian.eus) aurkeztu ahalko dira, han ezarritako baldintzen arabera, edo zuzenean, Donostiako Sustapenaren Informaziorako Zerbitzu Zentraletan, helbide honetan: Erregina Erregentea 8, Victoria Eugenia Antzokia, 20.003 Donostia, Donostiako Sustapenaren webean agertzen den publikoaren arretarako ordutegian.

Edozein informazio edo kontsultarako, 943 482 800 telefonoa edo fomentoss@donostia.eus helbidea daude eskuragarri, hurrengo erreferentzia aipatuta: Gabonetako azoka.

Azokan izena emateko eskaerarekin batera agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Eskaera-orria.
- Alderdi hauek jasotzen dituen txostena:
 1. Eskatzaileak Gabonetako merkatuetan duen esperientzia eta profesionaltasuna, esparru geografikoa, parte-hartze kopurua, iraupena eta aipatutako azoketan zer produktuekin parte hartu duen adieraziz.
 2. Instalazioen eta salgaien deskribapena: ezaugarriak, tipografia, ontziak, eredia eta abar. Artisauen kasuan, produkzio edota fabrikazio eredia eta produktua berezi eta adierazgarria egiten duen beste edozein xehetasun adierazi beharko dira.
 3. Fotomuntatzea, produktuen argazkiak eta erakusteko eta kokatzeko modua erakusten dituen. Gutxienez, 5 argazki, azokan salduko dituen produktuen zerrenda eta etxolaren barruan erabiliko duen dekorazioa aurkeztuko dira.
 4. Zenbat etxola eskatzen dituen eta zer tamainakoa (3x2 edo 4x2 m).
 5. Jarduera ekonomikoaren deskribapena, jatorria eta eraketaren data berariaz zehaztuz.
 6. Eskaerak jarduerarako eskatzen dituzten berariazko beharren informazio zehatza aurkeztuko dute, antolatzaileek egokia eta bideragarria den ala ez balora dezaten.
- Pertsona fisikoa baldin bada, eskatzailearen NANaren kopia.
- Pertsona juridikoa baldin bada, eskatzailearen IFKaren kopia eta, bere kasuan, sinatzailearen NANA.
- Oraindik eratu gabe dagoen enpresa bat bada, enpresa eratzeko berariazko borondatea duela jasotzen duen aitopena ere eman beharko du (eskaera orrian).

Eskaera onartuta eta dagokion epea bidalita, onuradunak agiri hauek aurkeztu beharko ditu jakinarazpena egiten den egunetik 10 laneguneko balioduneari kontratua formalizatzeko:

- Eskatzailearen jarduera ekonomiko-historikoen agiri eguneratua.
- Erantzukizun zibileko aseguruaren eta haren ordainketa egiaztatzen duen agiriaren kopia.
- Elikagaiak manipulatu diren etxolen kasuan, enpresek, eskatuko diren dokumentu osagarriak ere erantsi beharko dituzte.

Aurrekoa gorabehera, antolatzaileek egokitzen duten beste edozein informazio edo agiri osagarri eskatu ahalko dio eskatzaileari, aurkeztutako datuak egiaztatzen.

Agiriak aurkezteko epeak ez baditu betetzen, eskaera balio gabetuko da, Sustapenak, interesdunak arrazoi justifikatuengatik eskatu ondoren, epea handitzeko baimena ematen badu salbu.

4. ESKAEREN AKATSAK ZUZENTZEA

Eskabidea egiten den momentuan eskaera-inprimakia erantsi beharko da, Oinarri hauetan eskatzen den dokumentazioarekin batera.

Behin dokumentazio osoa berrikusita eskabidea behar bezala beteta ez dagoela egiaztatzen baldin bada, edo dagokion dokumentazioa ez bada jasotzen, pertsona edo entitate eskatzaileari horren berri emango zaio, 3 egun baliodunetan akatsa konpondu edo beharrezko dokumentazioa aurkez dezan, adieraziz, gainera, jardun horiek betetzen ez baditu eskaeratik kanpo geldituko dela, beste inongo tramiterik gabe, horren inguruan erabakia ezarritik.

Donostiako Sustapenak, egokituz jotzen badu, argibideak eskatu ahalko ditu.

Donostiako Sustapenak egindako berariazko ebazpenaren bidez jakinaraziko da etxola/food truck ustiatzeko esleipena ematen den edo ez.

5. ERAKUNDE ERAKUSKETARIEN BALDINTZAK

Alokairuaren onuradun izan daitezke pertsona fisiko edo juridikoak, publiko edo pribatuak, nazionalak edo atzeritarrak, eta baita aurreko izaerarik ez duten taldeak ere, Oinarri hauetan ezarritako baldintzetan lehiatzen direnetan, araudi juridikoari jarraituz egoki osatu baldin badira. Ondare-sozietateak kanpo geratuko dira, urtarrilaren 17ko 2/2014 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauko 14. artikuluan definitu direnak.

Oinarri hauetan, partzela bat alokatzea eskatzeko beharrezkoak diren baldintzak eta egiaztatzeko modua zehaztuko dira.

Indarrean dauden xedapenek ezarritako Gizarte Segurantzarekiko betebeharren eta zerga betebeharren betetzea egunean ez duten pertsona fisiko edo juridikoei ezingo zaie partzelaren alokairurik esleitu.

Ebazpen tinko baten bidez diru-laguntzak edo laguntzak jasotzeko aukeraren galerarekin zigortu zaien pertsona fisiko edo juridikoei ezingo zaio partzela baten alokairua esleitu, ezta hartarako ezgaituak izan diren debeku legalen baten mende dauden pertsonen ere, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, Gizon eta Emakumezkoen berdintasunarena, azken seigarren xedapenean jasotzen den sexu arrazoiengatik egindako bazterketak burutu izanagatik zigortuak izan direnak barne.

Donostiako Udaletxearekin edota Donostiako Sustapenarekin zorren bat duten pertsona fisiko edo juridikoei ere ezingo zaie partzela baten alokairua esleitu.

Hauek dira oinarri hauetan araututako alokairuen onuradunek bete beharreko baldintzak:

- Dagokion araubidean autonomo/enpresa gisa alta emanda egotea kontratua sinatzen denean. Eskaera egiten den unean ez badago alta emanda, ustiapen-kontratua formalizatu aurretik, dagokion Gizarte Segurantzaren araubidean eta Ogasunean alta emateko konpromisoa agertu beharko du.
- Bere jarduera garatzean eska daitezkeen baimen guztiak izatea.
- Erantzukizun zibileko aseguru bat izatea ekintzak iraungo duen aldi osoan.

6. ESKAEREN PROZEDURA ETA BALORAZIOA

Erakustegiak esleitzeko norgehiagoka printzipioak erabiliko dira. Etxolen eta food trucken ustiapena, atal honetan agertzen diren irizpideak kontuan hartu ondoren puntuaziorik handiena lortzen duten eskaerei esleituiko zaie.

Jasotako eskaeren gehieneko puntuazioa 15 puntukoa izango da. Sustapenak xede horretarako sortutako Aditu Batzorde batek egingo du balorazioa. Hautatua izateko, eskatzaile bakoitzak gutxienez 8 puntu lortu beharko ditu. Hauek dira balorazio-irizpideak:

| BALORAZIO IRIZPIDEAK | | | Gehiegizko balioa |
|--|---------------------------|---------------------------------------|-------------------|
| Eskatzailean gabonetako azokeri buruz duen | Gabonetako azoketan parte | 0-3 azoka | 1 |
| | | 4 edo gehiago | 2 |
| Produktuen deskribapena | Produktua | Tipologia eta aniztasuna | 2 |
| | | Gabon kutxua | 3 |
| | | Berritasun eta originaltasuna | 3 |
| | | Produktuen antolamendu eta erakusketa | 3 |
| Jarduera ekonomikoaren deskribapena | JEZ-a Donostian | | 1 |
| | Hirian denda fisikoa | | 1 |
| | | | 15 |

7. USTIAPEN KONTRATUA DEUSEZTATZEA

Donostiako Sustapenak kontratua deuseztatu ahalko du, betiere oinarri hauetan ezarritakoa eta ustiapen-kontratuan araututakoa ez bada betetzen. Horrek ez du eskubiderik emango inolako kalte-ordain edo konpentsazio jasotzeko.

Hauek izan daitezke kontratua deuseztatzeko arrazoiak:

- Titularrak uko egitea. Uko egiteak 300 €ko zehapena ekarriko du.
- Titularra hiltzea.
- Baimena lortzeko eta mantentzeko eskatutako baldintza guztiak edo batzuk galtzea.
- Donostiako Sustapenak ezeztatzea, kontratuaren baldintzak ez betetzeagatik.
- Gabonetako Azoka ezinbestez etetea.

8. DATU PERTSONALEN BABESA

Jarduera honen esparruan bildutako eta sortutako datu pertsonalak Donostia Sustapenaren bidez kudeatuko dira, enpresa proiektuei laguntzeko eta sustatzeko eta enpresei eta/edo autonomoei suspertzeko zerbitzuak eskaintzeko. Ondorio horretarako, eskaintzen eta sortzen diren datu pertsonalak zerbitzu hau eskaintzeko beharrezkoak dira, horiek gabe, zerbitzu hau ezinezkoa baita.

Titularrak emandako izaera pertsonaleko datuetan eman daitekeen edozein aldaketa Donostia Sustapenari jakinarazi beharko dizkio, eta aipatutako titularra izango da, kasu orotan, unean une hornitutako datuak benetakoak eta zehatzak izatearen erantzule. Hirugarren pertsonen datuak hornituz gero, eskatzailek datu horien titularren baimena eduki beharko du, datu horiek jakinarazteko. Aipatutako datuak tratatzeko erantzulea Donostiako Udala da, eta Donostia Sustapena aipatutako tratamenduaren arduraduna izango da, zerbitzuaren kudeatzaile gisa.

Donostia Sustapenak kudeatutako datu pertsonalak tratatzea gaitzen duen titulu juridikoa Datu Babesari buruzko Europako Araudi Orokorreko 6. artikulua barne hartutako interes publikoarena da.

Datuak hirugarrenei lagako zaizkio, obligazio legalak betetzeko edo kanpo hornitzaileek zerbitzuari euskarri eman ahal izateko beharrezkoa bada.

Datuak zerbitzuak irauten duen bitartean kontserbatuko dira, ezarritako kontratuari jarraiki eta bost urteko ondorengo aldi batez, araudi fiskala betez. Datu pertsonalen tratamenduarekin lotutako eskubideak aitortu daitezke Donostiako Udalaren Udalinfo Zerbitzuan, Ijentea kalea, 1, 20003.

Ondorio hauetarako, adierazten da, dagokion eskaera aurkeztuz gero, eskatzaileak bere datu pertsonalak tratatzea espresuki baimentzen duela, aurreko paragrafoetan adierazitakoari jarraiki.

9. AZKEN XEDAPENA

Oinarri hauek Donostiako Sustapenaren webean argitaratuko dira, eta berauek argitaratu eta hurrengo egunean egongo dira indarrean. Interesdunek eskaera aurkeztean haren oinarri guztiak onartzen dituzte, eta eskatzaileak Gabonetako azokaren berriazko arauak eta azokaren garapen onerako antolatzaileek ezarritako xedapen zehatzak onartu eta ontzat hartzen ditu.

Aukeratutako pertsona izango da aurkeztutako dokumentazio guztiaren egiazkotasunaren eta jardueraren aurreko edo ondorengo jardunek, eta baita jardunak berak zuzenean ere, eragin ditzakeen kalte pertsonalen edo/eta materialen erantzule bakarra. Horrela, Donostiako Sustapenak ez du inolako erantzukizunik izango kontzeptu horiengatik.

Donostian, 2018ko urriaren 1ean
Euken Sesé Sarasti
Donostia Sustapeneko, S.A. Kudeatzailea